



## XII. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA HABIAN DA

Irailaren 30a bitarte, udako argazkiak bidaltzeko aukera egongo da; lehen hiru bozkatuenak sarituak izango dira »7

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteazkena  
2010-09-1

VIII. URTEA 2.602. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

EDURNE PASABAN MENDIGOIZALEA

## «Niri eta talde osoari lasaitasun handia eman digu berri honek»

**TOLOSA** Hego Koreako Alpinismo Federazioak Pasabanek Miss Oh-ren inguruan esana berretsi du

**LEHIA** Korearrak Kanchenjunga ez baldin bazuen igo, tolosarra litzateke 14 zortzimilakoak igozten lehena »3



## Asteburuan eskualdeak jaietan jarraituko du

**FESTAK** Alkizan, Lizartzan, Elduainen eta Tolosako Izaskun auzoan ospatuko dituzte »4-5

**Abuztuan zehar kirolariak izan dira protagonista**

**KRONIKA** Errepideek hildako bat utzi dute gure eskualdean »2

**'Udarako azken festan' ekitaldi eta ikuskizun bereziak**

**TOLOSA** Besteak beste, hondartza boleibola eta kapoira egongo dira »6

## III. Mendi Martxan izena emateko aukera zabalik dago

**ARESO** Igandean 08:00etan irtengo dira mendizaleak; ibilbidea 26 kilometrokoa da, «4-5 ordutan egiteko modukoa» »6



Eszerreko argazkian, Eneko Lasa Eslovakiako Propad ibaian arrantzan, Munduko Txapelketaren baitan. Eskuinekoan, Carlos Peña Aragoiko Kanal Inperialean igeri egiten. HITZA

# Kirolariek ez dute atsedeenik

**Abuztuko kronika** » Azken bost asteetan hainbat albiste jazo dira eskualdean, eta ohi bezala, kirolariak izan dira protagonistetako batzuk.

## ERREDAKZIOA

Kirolak ez du oporrik hartzen abuztuan eta eskualdean ere izan da albisterik hainbat kiroletan. Bestalde, Garikoitz Ibarluzeak preso jarraitzen du Londresen bere aurkako euroagindurekin zer gertatuko den zain. Omenaldientzako tartea ere izan da, Juan Bautista Aranzabek eta Ibiurko bizilagunek jasotakoak, hain zuzen. Inpernu Gazte Asanbladak zenbait orduz Sevendenea okupatu zuen. N-1 errepedea, beste behin, albiste txarren lekuko izan da, hildako bat izan baitzen Iruran izandako istripu batean.

## Uztailak 25

■ **Irene Usabiaga.** Tolosa C.F. taldean aritzen den Irene Usabiaga txirrindulari ordiziarrak errepedeko

Espainiako Txapelketa lortu zuen junior mailan. Bost txirrindulari iritsi ziren helmugara eta esprintean irabazi zuen.

## Abuztuak 9

■ **Eneko Lasa.** Munduko Txapelketan dominak lortzen jarraitzen du Eneko Lasa arrantzale alegiarrak. Aurten Eslovakian izan da Txapelketa, Liptovsky Mikulas herrian, eta Lasak gazteen mailan taldeka 3. postua lortu du. Hirugarren Munduko Txapelketa izan da Lasarentzat eta guztira lau domina jaso ditu.

## Abuztuak 10

■ **Hildako bat N-1ean.** 79 urteko donostiar bat hil zen istripu batean N-1ean, Iruran. Hiru ibilgailuren artean izan zen istripua, auto bat,

furgoneta bat eta kamioi bat. Hildakoa autoan zihohan.

## Abuztuak 11

■ **Juan Bautista Aranzabe.** Cambadosen (Galizia) egin zen XXVI. Albariño Nazioarteko Xake Torneoan Juan Bautista Aranzabe tolosarrari omenaldia egin zioten 25 urtez Txapelketa horren antolatzaileekin lagunduz duelako. Bide batez, hurrengo urtean antolatzaileek epaile bezala aritzeko gonbidapena luzatu diote Aranzaberi.

## Abuztuak 12

■ **Garikoitz Ibarluzea.** Ibartarrak preso jarraitzen du Londresen. Espainiako Auzitegi Nazionalak eskatutako euroagindua ez zuen onartu Londresko Epailen Gorteak eta baldintzapean aske utzi zuen Ibarluzea 18.200 euroko bermepean. Fiskaltzak helegitea jarri zuen epaile eta baldintzapeko askatasunaren inguruan eta Westminsterreko epaitegiak onartu egin zuen baldintzapeko askata-

sunaren ingurukoa. Ibarluzeak urriaren hasiera arte jarraituko du espetxean estradizioaren hurrengo bista egin bitartean.

## Abuztuak 14

■ **Ibiurko bizilagunei omenaldia.** Herriko festen baitan, orain urtegiak hartzen duen Ibiur bailaran bizi ziren bizilagunei omenaldia egin zitzaion eskultura bat inauguratzu plaza eraberrituan. Tomas Ugartemendia eskultore leaburutarrek egin zuen artelana.

## Abuztuak 15

■ **Carlos Peña.** Igerilari tolosarrak beste abentura bati ekin zion. Aragoiko Kanal Inperiala zeharkatu nahi zuen Tuteran (Nafarroa) hasi eta Fuentes del Ebroraino (Aragoi), 110 kilometro hiru egunetan. Lehenengo eguna burutu ahal izan zuen 40 kilometro eginez, baina bigarren eguna hasi behar zuenean Kanaleko garda batek eragotzi zion baimenen inguruko afera batengatik. Aurrera begira bes-

te erronka batzuk dituela azaldu du igerilari eta abenturazaleak.

## Abuztuak 17

■ **Inpernu Gazte Asanblada.** Sevendenea bezala ezagutzen den etxea okupatu zuen Tolosaldeko Inpernu Gazte Asanbladak, Korazonisten eliza okupatu eta urtebetera. Goizean okupatu zuten etxea eta eguerdian udaltzainek eta ertzainek bertatik irtenarazi zituzten. Bost lagun identifikatu zituzten. Inpernuokoei aurreikusita zituzten ekintzak burutu zituzten: Uzturren mendia ibilaldia, mus txapelketa eta bazkaria. Inpernutik azaldu dutenez, «erabili gabe dagoen etxe bat okupatzen denean, orduan etortzen zaio burura Bildarratzi eraikin horrek zein erabilera izan dezakeen».

## Abuztuak 29

■ **Euskal Herriko Aizkora Txapelketa.** Joseba Otaegi zizurkildarrak eta Jexux Mari Mujika ibartarrak Euskal Herriko Aizkora Txapelketa finala jokatu dute. Berrobioko kanporaketan txartela lortu ondoren, Jon Rekondo leitzarrak, berriaz, maila galdu zuen proba bertan azkeneko postuan geldituz.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORTZETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

**E Elkarrizketa**

**EDURNE PASABAN** Mendigoizalea

**Mendia** » Oh Eun-Sun korearrak hamalau zortzimilakoak egin izana zalantzan jarri berri du Hego Koreako Alpinismo Federazioak; pozez hartu du berria mendizale tolosarrak.

**INIGO TERRADILLOS**

Denborak guztia argitu eta bere lekuan jarriko zuela esan zuten Edurne Pasabaneke eta bere espediziokideek apirilean Annapurna igo eta gero. Une horretan, mendigoizale tolosarrari Shisha Pangma gailurra geratzen zitzaion hamalau zortzimilakoak osatzeko. Munduan erronka hori gainditzen duen lehen emakumea izatea zuen helburu, baina Oh Eun-Sun korearrak aurrea hartuko ziola zirudien, Annapurna, ustez bere azken zortzimilakoa izango zena, esku-eskura baitzuen. Eta, horrela izan zen. Korearra aurreratu zitzaion tolosarrari, baina, bai Pasabaneke, bai eta bere espediziokideek argi-izunak ikusten zituzten korearraren zortzimilakoetan. Lau hilabete geroago, korearraren eta tolosarraren arteko afera amaierara iritsi dela dirudi. Oh Eun-Sunek ez zuela Kanchenjunga igo erabaki du Hego Koreako Alpinismo Federazioak, aurkeztu zituen frogak eta argazkiak zalantza zokoak direla iritzita. Albisteak «lasaitasun handia eta poza» eman dio Edurne Pasabani.

**Zer aldatzen du jaso berri duzun albiste honek?**

Pentsatzen eta esan genuenez ziur ginen arren, niri eta talde osoari lasaitasun handia eman digu berri honek. Batez ere, nondik datorren ikusita, izan ere, bere lurraldetik, hau da, Hego Koreatik iritsi da. Bertako Alpinismo Federazioak esan du korearrak aurkeztutako frogekin ez dela frogatzen Kanchenjunga igo zuenik.

**Zuek ere argi zenuten hori.**

Annapurnan ginela, bai nik eta baita nire taldekideek ere, Oh Eun-Sunek ez zuela Kanchenjunga igo esan genuen. Sherpa batzuk zalantzan jarri zuten gailur hori eginiza-

**«Kanchenjunga ez zuela igo esan genuen, baina guk esan aurretik ere zalantza baziren»**

na, eta korearrak aurkeztutako argazkiengatik guk ere gure zalantzak genituen. Une hartan guk hori esan izanakin min handia egin zigun. Kazetari bati konfidantza esan genion eta guk nahi baino gehiago zabaldu zen kontua. Baina, ez genuen gure esan eztabaida, Oh Eun-Sunek pasa den urtean Kanchenjunga ustez igo zuenetik piztu ziren zalantzak, eta ordutik, Hego



INIGO TERRADILLOS

**«Albisteak lasaitasuna eman arren, nire bizitzan ez du ezer aldatuko»**

Koreako Alpinismo Federazioa ikertzen aritu da.

**Zergatik jarri zuten zalantzan Oh Eun-Sunek Kanchenjunga igo izana?**

Berak aurkeztutako gailurreko argazkiak sortu zituzten zalantzak. Federazioaren asmoa Kanchenjunga izandako Koreako mendigoizale guztiak biltzea zen, eta guztien artean erabakitzea bene-

tan mendi hura igo zuen ala ez. Oh Eun-Sun-i jakinarazi zioten euren asmoa, eta bitartean korearrak hamalau zortzimilakoak egiten jarraitu zuten.

**Federazioak ez zuela zortzimilako hura egin esan duen arte.**

Oh Eun-Sunek Koreako telebista bat izan du laguntzaile bere espedizioetan. Kanchenjungekin zalantzak piztu zirenean bertako

beste telebista bat ikertzen hasi zen igoera hura. Eskalatzaila ugari elkarrizketatu dituzte, ni tartean, eta baita sherpa ere. Argazkiekin eta bestelakoekin konparaketak egiten aritu dira, eta azkenean ikerketa guztia argitaratu zuten abuztuaren 22an. Korean zeresan handia eman zuen. Alpinismo Federazioa bildu egin zen hura ikusi ostean, eta erreportaje

ematen zituzten datuak eta euren zalantzak aintzat hartuta, azkenean erabakia hartu zuten.

**Honen guztiaren arabera, ofizialki zuzal zara orain munduan hamalau zortzimilakoak egin dituen lehen emakumezkoa?**

Korearraren gailur bat zalantzan dago, beraz, ezin esan daiteke hamalauak eginak dituenik. Gertatzen dena da ez dagoela ezer edo inor gailurren zenbaketetan ofizialtasuna ematen duenik. Dena den, esaterako, Wikipedia Interneteko eduki libreko entziklopedian aldatu dute dagoeneko zerrenda; hau da, Oh Eun-Sun 21. azaltzen zen orain arte, eta ni bere atzetik, baina orain, ni naiz Wiki-

**«Wikipedian Oh Eun-Sun kendu egin dute hamalau zortzimilakoak egin dituztenen zerrendatik»**

pediaren arabera hamalau zortzimilakoak egin dituen 21.a, eta beraz, lehen emakumezkoa. Himalayan zortzimilakoekin notario lanak egiten dituen Elizabeth Hawley-k ere esan du korearrak Kanchenjunga berriro igo behar lukeela hamalau gailurak eginak eduki nahi baditu. Azkenean, hau guztia ziurztatuko duen inor izan ez arren, denborak jarriko du guztia bere lekuan.

**Korear mendigoizaleak bere burua defendatzeko aukera izango du orain, ezta?**

Ez dut uste Kanchenjunga igota duenaren frogarik aurkeztuko duenik. Prentsaurreko bat emateko zen azalpenak emateko, baina ez du eman oraindik. Gainera, urtebete izan du frogak aurkezteko, eta ez du egin, beraz, ez dakit zer aurkeztu ahaliko duen orain. Nire ustez, eskuetatik joan zaie hau guztia, hamalau zortzimilakoak lortzeko aurreikusitako estrategiaren prestioarengatik.

**Buruan zenituen proiektuekin jarraitu behar al duzu orain?**

Nire bizitzan albiste honek ez du ezer aldatuko. Aldatu den gauza bakarra da, komunikabideetan oihartzun handia izan duela albisteak. Gainerakoan, nik nire gauzekin jarraituko dut, hau da, nire liburuarekin, Everest oxigenorik gabe igotzeko asmoarekin, eta hitzaldiak ematen. Datorren urteko apirila bitarte bete da egutegia.

**Nolakoa izango da liburua?**

Azken hamar urteetan bizitakoa azalduko dut liburu honetan. Urte bukaerarako idatzita edukitzea espero dut, eta 2011ko apirilean kalentzian egotea.

**Everesterako erroka, berriz, zertan da?**

Orain sartuko gara buru-belarri kontu horrekin. Apirila-maiatzeko joango gara, eta gure asmoa Everest gailurra oxigenoaren laguntzarik gabe igotzea da. Horrela, hamalau zortzimilakoak oxigenorik gabe eginak izango nituzke.



# JAIKIN JARRAITZEKO

**Jaiak** » Herri askotan abuztuan zehar festak izan badira ere, ez dira guztiak amaitu. Festa gosez geratu denak, oraindik badu non aukeratu.

**EREDAKIZIOA**

Kantuaren abestirik «festarik festa herri nabli ni egarnera...» dio eta gurean, udako egunetan ez da festarik gabeko egunik izan. Udaberrian hasi ginen festekin eta uztaila pasatu ostean, abuztuko hilabetea herri herri eta festarik festa ihil-zeko modukoa izan da. Hasi Alizako jaietan eta Berrioko festak bitarte, tartean herri ugari izan opatu dituzte. San Estebanak, San Lorentzok, San Tiburtziok, Ana Bihinen jaiak, San Bartolomeak edota San Agustinak. Gazte eta ez hain gazte herriartar edota kanpotar guztiak evo jagiroon ibilidira.

auzoko festak izango dira. Suzirik emandako hasierarekin ostiralean hasiko dituzte jaiak.

**Hasteko era guztietako musika** Ostiralean, Alizan, Elustondo anai-errebekin erromeria izango dute. Ekharriaren Dj Bull eta Gatillazo eta Vendetta taldeen kontzertuak izango dira. Auzobus zerbitzua ere jarri dute. Leiztan Gazteak aurretik 23:30ean aterako da eta buelta 04:00etan egin ahal izango dute. Tolosan Santa Klaraik, El duainera igotzeko, 23:00etan aterako da eta buelta, 04:30ean izango da. Lizartzan, Giza proiektua eta kamuki taldeen eskutik kontzertuak izango dira eta Iraskun auzoko jaietan, Laker taldearen erromeria izango da.



Herri askotan bezala, Adunán herriartaren arteko herri kirol saioa egin zuten. ©EITZA

**Irudikatu mundua BERRIarekin**

**Gozatu berria**

Egin harpidedun eta jaso ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.

**Espegiak:**

- 1000 argazki, 8 megapixela
- 1000 argazki, 12 megapixela
- 1000 argazki, 16 megapixela
- 1000 argazki, 20 megapixela
- 1000 argazki, 24 megapixela
- 1000 argazki, 28 megapixela
- 1000 argazki, 32 megapixela
- 1000 argazki, 36 megapixela
- 1000 argazki, 40 megapixela
- 1000 argazki, 44 megapixela
- 1000 argazki, 48 megapixela
- 1000 argazki, 52 megapixela
- 1000 argazki, 56 megapixela
- 1000 argazki, 60 megapixela
- 1000 argazki, 64 megapixela
- 1000 argazki, 68 megapixela
- 1000 argazki, 72 megapixela
- 1000 argazki, 76 megapixela
- 1000 argazki, 80 megapixela
- 1000 argazki, 84 megapixela
- 1000 argazki, 88 megapixela
- 1000 argazki, 92 megapixela
- 1000 argazki, 96 megapixela
- 1000 argazki, 100 megapixela

Orain, beste arazoak berriekin harpidedun izateko.

Urtearen 15ean, **telebista hau zotz egingo duzu BERRIarekin harpidedunen artean, Elektraen eskutik.**

**elektra**

Harremanetarako: 943300 43 45 • harpidetza@berria.info

ALBERCIZAZU, IZARRASAR, **berria**



Albizturren bizkileta eta moiben ikuskizuna izan zuten. ©EITZA



Berostegin, dantza eta antzerkia uztauten zizuten. ©EITZA



Iaz bezala aurtenera, haur jolaki izango dira festei hasiera emateko Alizan. Buruhandiak ibili ziren frontoan. ©EITZA

**» EGITARAUA**

**ALKIZA**

- **Irailak 3, ostirala**
- **16:00.** Haur jolaki izango dira festei hasiera emateko.
- **21:00.** Herri afaria Ostatu jalean.
- **23:00.** Erromeria Elustondo anai-arebeekin.

**Irailak 4, larunbata**

- **16:30.** Piboi traketak, Erriope ehiza elkarrekin antolatuta.
- **17:00.** Futbol partida, eskondutak estropak eta musika.
- **23:00.** Herri kirol saioa, aizkolari eta harrizotzaleekin.

**Irailak 5, igandea**

- **10:00.** Meza Nagusia
- **11:30.** Biskileta lasterketa herriartar helduentzat.
- **12:30.** Txakolin dastaketa.
- **17:00.** Asta lasterketa.
- **18:00.** Beteranoen arteko XIX. Pilota txapelketaren finala. Ondoren Bida-Batez taldeekin erromeria.

**Irailak 6, asteazkena**

- **12:00.** Meza Nagusia
- **12:00.** Toka txapelketa haurrentzat.
- **14:00.** Jubilatuen bazkaria Ostatu jalearekin izango da. Udalak antolatuta.
- **17:00.** Gazteboen arteko pilota partidak.
- **18:00.** Toka Txapelketa helduentzat. Ondoren, trikitixa Jon Ostolaza eta Antzoi Txapartegirekin.

**Irailak 10, ostirala**

- **17:00.** Patxin eta Patxin patilazoz.
- **18:00.** Trikitipotea moztorturirik.
- **21:00.** Barriotas.
- **23:00.** Karaokeak.
- **Ondoren.** Erromeria Ingo al deuz taldearekin.

**Irailak 11, larunbata**

- **10:30.** Biskileta lasterketa haurrentzat.
- **17:00.** Ion Zabala eta Iraskun Mendizabalen oroinenez, herriartaren arteko Herri Kirol saioa.
- **18:00.** Sagardo dastaketa.
- **23:00.** Bertsolariak: X. Lizaso, A. Egalla, A. Arzallus, M. Lujanbio, A.M. Peñagarikano eta I. Zubeldia. Gaijartzaileak: A. Agne.
- **Ondoren.** Berberna Kantutoki taldearekin.

**ELDUJAIN**

**Irailak 3, ostirala**

- **17:00.** Suzirik jaiak hasiera emango die. Ondoren, puzgarriak herriko tokiarentzat.
- **21:30.** Herri afaria Urdelar biltokiaren.
- **Ondoren.** Dj Bull Urdelar Biltokiaren.
- **00:00.** Kontzertuak plazan.
- **17:00.** Antzerkia herriko urtean eskutik. Ondoren, Falkoneria (Cetreria) ikuskizuna. Eta festei amaiera emateko, Gorniti eta bere animalki izango dira.

**Irailak 4, larunbata**

- **11:00.** Zaldi gainean edota gurdian ibilidiek herriaren zehar.
- **17:00.** Toka saioa herriko plazan, sari eta gutxi.

**Irailak 8, asteazkena**

- **11:00.** Meza Nagusia Santa Katalina elizan. Ondoren, hamaketa-ko sardinak, txakolina eta ardoak.
- **12:30.** Pilota partidak herriko pilotarien eskutik.
- **17:30.** Zaldien Doma, Mirandako bolabolaz.
- **18:30.** Dantza ikuskizuna. Askarna taldeak, Maculelel, Kapoira eta Baitakada eskainiko dituzte.

**Irailak 9, ostirala**

- **11:00.** Meza Nagusia Santa Katalina elizan. Ondoren, hamaketa-ko Kontzertu tabernan.
- **17:00.** Antzerkia herriko urtean eskutik. Ondoren, Falkoneria (Cetreria) ikuskizuna. Eta festei amaiera emateko, Gorniti eta bere animalki izango dira.

**IZASKUN AUZOAN**

**Irailak 3, ostirala**

- **18:00.** Txupinazoa eta txokolatada. Glaukoma-ren 2010eko festetako kantuarren aurkezpenarekin Ondoren, buruhandiak.
- **19:30.** Trikiti-potea.

**Irailak 4, larunbata**

- **10:00.** Goizdea, Lizardi Txistulari taldearekin.
- **12:30.** III. Patata Tortilla lehiaketa.

**20:45.** Danborrada afaria.

- **22:45.** Danborrada, Bonberenea Txistulari taldearekin.
- **00:00.** Laketa taldearekin erromeria.

**Irailak 4, larunbata**

- **10:00.** Haurrentzako gosaria eta ondoren jolaskak.
- **11:00.** Toka txapelketa.
- **12:30.** Batek desfiloa Oriñ ibaian: Bonberenea vs Iraskun.
- **14:00.** Auzo bazkaria barangarriekin. Ondoren, Iraskun auzoko Mus Txapelketa 2010. Toka Txapelketa (emakumezkoak).
- **19:00.** Sagardo dastaketa pibotekin.
- **23:00.** Kontzertuak: R. Biek eta Glaukoma Sound System.

**Irailak 5, igandea**

- **10:00.** Goizdea Lizartako gaiterekin.
- **11:30.** Herriko gazteen pilota partidak eta ondoren zesta punta partidak jokatuko da.
- **13:00.** Poteoa Lizartako gaiterekin.
- **17:00.** Mus Txapelketa Joxe Miran izango da.
- **18:00.** Dantza soka.
- **19:30.** Antzerkia: Oteiza/Gizar-ta.

**LIZARTZA**

**Irailak 3, ostirala**

- **19:30.** Kalejira Karobitxulo trikitixa taldearekin eta buruhandiez alaiturik.
- **21:30.** Herri Afaria.
- **00:00.** Txupinazoa eta danborrada Isak Gubiña barangarriekin.
- **Ondoren.** Kontzertuak: Giza Proiektua eta Kantutoki taldearekin.

**Irailak 4, larunbata**

- **10:00.** Goizdea, Lizardi Txistulari taldearekin.
- **12:30.** III. Patata Tortilla lehiaketa.

**20:45.** Danborrada afaria.

- **22:45.** Danborrada, Bonberenea Txistulari taldearekin.
- **00:00.** Laketa taldearekin erromeria.

**Irailak 5, igandea**

- **10:00.** Goizdea Lizartako gaiterekin.
- **11:30.** Herriko gazteen pilota partidak eta ondoren zesta punta partidak jokatuko da.
- **13:00.** Poteoa Lizartako gaiterekin.
- **17:00.** Mus Txapelketa Joxe Miran izango da.
- **18:00.** Dantza soka.
- **19:30.** Antzerkia: Oteiza/Gizar-ta.

**Irailak 7, asteartea**

- **19:30.** Kalejira Lizardi Txistulari taldearekin.

**Irailak 8, asteazkena**

- **10:00.** Goizdea, Lizardi Txistulari taldearekin.
- **11:30.** Gazteboen pilota partidak.
- **14:45.** Helduen hamaketaoa Txistulari Elkartean.
- **14:00.** Helduen bazkaria egingo dute.
- **18:30.** Otsolar dantza taldearen emanaldia.

**XII. HITZA Argazki Lehiaketa**

**Animatu eta parte hartu!**

**NORA BIDLALI?**

argazkiak@tolosaldeko HITZA.info helbide elektronikora

**Irailak 30 arte**

**HITZA** udarako argazki lehiaketa

**1. Saria**

**2. Saria**

**3. Saria**

**4. Saria**

**5. Saria**

**6. Saria**

**7. Saria**

**8. Saria**

**9. Saria**

**10. Saria**

**11. Saria**

**12. Saria**

**13. Saria**

**14. Saria**

**15. Saria**

**16. Saria**

**17. Saria**

**18. Saria**

**19. Saria**

**20. Saria**

**21. Saria**

**22. Saria**

**23. Saria**

**24. Saria**

**25. Saria**

**26. Saria**

**27. Saria**

**28. Saria**

**29. Saria**

**30. Saria**

**31. Saria**

**32. Saria**

**33. Saria**

**34. Saria**

**35. Saria**

**36. Saria**

**37. Saria**

**38. Saria**

**39. Saria**

**40. Saria**

**41. Saria**

**42. Saria**

**43. Saria**

**44. Saria**

**45. Saria**

**46. Saria**

**47. Saria**

**48. Saria**

**49. Saria**

**50. Saria**

**51. Saria**

**52. Saria**

**53. Saria**

**54. Saria**

**55. Saria**

**56. Saria**

**57. Saria**

**58. Saria**

**59. Saria**

**60. Saria**

**61. Saria**

**62. Saria**

**63. Saria**

**64. Saria**

**65. Saria**

**66. Saria**

**67. Saria**

**68. Saria**

**69. Saria**

**70. Saria**

**71. Saria**

**72. Saria**

**73. Saria**

**74. Saria**

**75. Saria**

**76. Saria**

**77. Saria**

**78. Saria**

**79. Saria**

**80. Saria**

**81. Saria**

**82. Saria**

**83. Saria**

**84. Saria**

**85. Saria**

**86. Saria**

**87. Saria**

**88. Saria**

**89. Saria**

**90. Saria**

**91. Saria**

**92. Saria**

**93. Saria**

**94. Saria**

**95. Saria**

**96. Saria**

**97. Saria**

**98. Saria**

**99. Saria**

**100. Saria**

# Aresoko plazatik abiatuta, III. Mendi Martxa, igandean

**Areso** » Aldez aurretik izena emateko epea gaur amaitzen da; egunean bertan, 07:00etatik aurrera egin daiteke.

## ERREDAKZIOA

Aresoko III. Mendi Martxa izango da igande honetan. Herriko plazatik abiatuta, Ulizar, Urkiza, Pagozelai eta Lau Mugarrietatik (Guratz) igaroko dira mendizaleak.

Hirugarrenez antolatuta dute mendi martxa eta oraingo honetan ere, luntxa, opariak eta zozketak izango dira parte-hartzaileen zatzat. Denera 26 kilometro zeharkatu beharko dituzte, eta horretarako 4-5 ordu beharko dituztela aurreikusten dute antolatuzaileek.

Aldez aurretik izena emateko

epeagaur amaitzen da. Horretarako interesatuek 948 60 45 45 telefono zenbakira deitu behar dute, edo [kirolmark@gmail.com](mailto:kirolmark@gmail.com) helbidera idatzi. Prezioa 5 eurokoa da. Baina egunean bertan ere 7:00etatik 07:45etara bitartean, plazan, izena eman daiteke. Honela egingez gero, hiru euro gehiago ordaindu behar dira.

Mendizaleak 08:00etan abiatuko dira plazatik, eta bertan amaituko dute ibilaldia. Egurdian, luntxa eta oparienez zozketa egingo dira.

## Nafarroako mendi martxen zirkuituan barrena

Proba ez lehiakorra da igandekoa, eta zailtasun ertainekoa malda eta iraupenari dagokionean. Nafarroako Mendi Ibilaldien Zirkuituan sartua dago, eta iaiz 277 lagunek hartu zuten parte.



Joan den urtean 277 lagunek hartu zuten parte Aresoko II. Itzulian. E. AZPIROZ

Aresoko Udalak, Plazaola Partzuergo Turistikoarekin eta Kirol Mankomunitatearekin elkarlanean antolatzen du mendi itzulia. Lehendabiziko urtean 18 kilometrotako itzuli bat prestatu zuten, eta 80 lagunek hartu zuten parte. Iaz berriz, ibilbidea luzatu zuten zortzi kilometro gehituz, eta parte-hartzaie izugarri handitu zen. Aurtengoa, joan den urtean lortutako arrakasta errepikatzea dute errotzat, eta mendizaleen kopurua mantentzea.

Nafarroako Mendi Ibilaldien

Zirkuitua bertako hamar menditaldek eta Nafarroako Mendi eta Eskalada Kirol federakundeak antolatzen dute. Ekimen honekin, beraien helburua inguruko herri eta eskualdeak ezagutzera ematea da.

Aurtengo zirkuitua 8 mendi martxek osatu dute. Lehendabizikoa Altsasutik abiatu zen, ondorengoak, Baquedanotik, hurrengoak, Irurtzundik, Etxaguetik, Arantzatik, Lekarotzetik eta Lesakatik. Orain, azkena, Aresotik irtingo da, eta urteko azkena izango da.

# Arrate eta San Antonioren arteko partida ikusteko aukera gaur 19:30ean

**Tolosa** » Usabal kiroldegian eskubalo partida jokatu dute Asobal ligako bi eskualdeek.

## ERREDAKZIOA

Goi mailako eskubalo partida ikusteko aukera egongo da gaur 19:30ean Tolosako Usabal kiroldegian.

Tolosa CFek antolatuta du ekimen ikusgarri hau eta Miguel Angel Lorz, Txipi, zenaren omenezko VI. partida izango da.

Edizio honetan Asobal ligako bi eskualdeak ariko dira, hau da, Eibarko Arrate eta Iruñeko Amaya Sport San Antonio.

Goi mailako jokalariek ikusteko aukera bikaina egongo da beraz gaur arratsaldean, 19:30ean, Tolosako Usabal kiroldegian. Aipatu, aurre demoralizazio azken txanpan aurkitzen direla bi taldeak.

# Gaurtik larunbatera 'Udarako azken festa' ospatuko dute

**Tolosa** » Hondartzako boleibola eta futbola, kapoira erakustaldia, musika eta abar izango dira datozen egunetan.

## ERREDAKZIOA

Uda amaitzeko oraindik ere, egun batzuk falta dira, baina Tolosan, honi agur esateko prest dira jada. Hori dela eta, gaurtik larunbatera bitartean, hainbat ekitaldi izango dira eskualdeko hiriburuan. Dena den, adio hau modu berezian esango diote, urte guztiko urtaro desatuenari.

Aurtengoa estreinakoz ospatuko da *Udarako azken festa* izenekoak. Baina datozen urteetan ere jarraipena izango du ekimenak. Hala, oportetara eskualdera datozen bisitariek, beraien egonaldiaz gozatzeko azken aukerak izango dituzte. Adin guztietan zuzendutako ekimen parte-hartzaileak prestatzea da antolatzaileen helburua.

## Kirola, musika eta gehiago, lau egunez

Gaur ekingo diete jardueri. Hasiteko, egun guztian zehar, benjamin mailakoan arteko neska-mutilen hondartzako futboleko txapelketa jokatu da. 4 x 4 formatuan ariko dira. Hurrengo egunean berriz, alebilen txanda izango da.

Hala, bihar ere egun guztian zehar izango dira partidak. Baina oraingoan, hiru hiruren kontra lehiatuko dira.

Ostiralean, futbola alde batera utzi, eta hondartzako boleibola izango da protagonista. Mistoa izango da txapelketa, eta etzi, lehen kanporaketak jokatu dira 17:00etatik aurrera.

Larunbatean, boleibol txapelketako partida gehiago ikusi ahal izango dira. 15:00etan final laurdenak jokatu dira. 18:00etan berriz, Sexy gogo's izango dira. 19:00etan, berriz, kapoira eta batu-kada erakustaldia. Ordu bat beranduago, txapelketako finala eta sari banaketa izango dira.

Jaialdia amaiiera musika eta performanceekin emango diote. 22:30etik aurrera, Eutsi - Matraketa eta Box.a izango dira Plaza Berrian.

Ekitaldiak aurrera eramateko, hondarrez estalitako 16 metro x 8 metroko kantxa bat jarriko dute Euskal Herria plazan. Bertan, honetan batera, gradak, musika ekipoa, DJa eta barra bat ipiniko dituzte. Hizlari lanetan Iñigo Asensio ariko da.

Futbol txapelketan parte hartzeko Shanti Kirolak denda eman daiteke izena. Boleibolekoan lehiatzeko berriz, Alde Zaharreko tabernetarajo behar dute interesatuek.



AUKERA HANDIA ETA GUZTIA

# Kalitatezkoa

**EDARIAK**



**ELIKAGAIAK**



**JANTZIAK**



**DISKOAK, LIBURUAK, DVDAK...**



**ESKULANCIATZA**



**400**

PREZIOA



SARTU ETA EROSI GUREAN

[www.euskalherrikoPLaza.com](http://www.euskalherrikoPLaza.com)



# Udako Argazki Lehiaketa martxan da

## XII. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA»

Harpidedunek aukeratuko dituzten hiru argazki onenek sari bikainak jasoko dituzte.

### ERREDAKZIOA

Udak aurrera jarraitzen baldin badu ere, oporraldiak amaitu dira TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkarian. Ikasturte berriarekin batera XII. HITZA Argazki Lehiaketa jarri dugu martxan. Gaurtik aurrera, irailaren 30a bitarte, irakurleen oportetako argazkiak jasotzen hasiko gara.

Lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek bi aukera izango dituzte: [argazkiak@tolosaldeko-hitza.info](mailto:argazkiak@tolosaldeko-hitza.info) helbide elektronikora bidaliz edo Tolosako Araba Etorbidea 5 behea helbidera ekarriz.

### Finalean, zortzi argazki

Irailaren 30etik aurrera, jasotako argazki guztiak bildu ostean, boz-

keta bidez zortzi argazki onenak aukeratuko dira.

XII. Argazki Lehiaketako argazki finalistak urriaren 3ko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN zenbakian argitaratuko ditugu. Harpidedunek urriaren 5etik 8ra bitartean Lehiaketako irabazleak aukeratuko dituzte euren bozken bidez. Lehen hiru saridunak urriaren 10eko egunkarian agertuko dira.

### Sari bikainak

Lehen saria Ea (Bizkaia) herrian dagoen **Andutza** landetxean bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia da.

Bigarrena, Getaria (Gipuzkoa) herrian dagoen **Gure Ametsa** landetxean bi pertsonentzako gau bateko egonaldia da.

Hirugarren saria **Gorrotxategi Gozotegiak** eskaini duen saskia izango da.

Azkenik, parte hartzaile etabotuen emaleen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu.



laz bertako argazki ugari jaso genituen, Donostian ateratako hau adibidez. I.L.



X. Argazki Lehiaketako argazkia; Alpeetako paisaia ikusgarria. LEIRE ZABALA



VIII. Argazki Lehiaketan Blas-en oporren berri izan genuen. ION GONZALEZ



Naturaren aurpegi desberdinak ikusi ohi ditugu Lehiaketan. ION GARMENDIA

www.euskalherriko **plaza.com**

**MERKE ALDI AN!**

**skunkfunk** %20

Lehen: 31,53 €  
Orain: 25,22 €

Lehen: 19,83 €  
Orain: 15,86 €

Lehen: 66,12 €  
Orain: 52,9 €

**okot** %20

Lehen: 28,48 €  
Orain: 22,78 €

Lehen: 57,17 €  
Orain: 45,74 €

Lehen: 28,48 €  
Orain: 22,78 €

20 €

20 €

20 €

**TTAK**

2 elastiko  
35 €





26°  
18°

GOIZA  
ARRATS.  
BEROENA  
HOTZENA

EGUZKIA  
EGUZKIA  
22°  
16°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarra, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatuta, saharar festa izango da etzi. 16:30etik aurrera jolasak izango dira gaztetxoentzat Plaza Berrian, eta ondoren afaria egingo dute Zerkausian. Saharar ohiko jakiak dastatzeko aukera izango da, eta bertako musikaz gozatu ahalko da. Afarirako txartelak 6 euroren truke daude salgai. Izena emateko 654 40 72 00 zenbakira hots egin beharko da.

■ **Tolosa.** 2011ko Tolosa Egutegirako argazki lehiaketa erretratuari buruzkoa da. Oinarriak <http://tolosagasa.blogspot.com> helbidean ikus daitezke. Erakusketan lehiaketan jasotzen dituzten 40 argazkirik onenak bilduko dituzte eta ondoren, bisitariek argazkirik onena bozkatzeko aukera izango dute. Antolatzailea: Tolargi eta Tolosagasa.

### Kirola

■ **Tolosa.** Miguel Angel Lorz Txipi zenaren oroimenezko eskubaloi partida Ohorezko Mailako Arrate eta Amaya Sport San Antonio taldeen artean izango da Usabal kiroldegian 19:30ean. Sarrera doan izango da.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Edurne Pasabani buruzko erakusketa Aranburu jauregian: materiala, argazki, irudi eta hurrek egindako marrazkiak ikus daitezke, besteak beste. Goizez nahiz arratsaldean bisita daiteke erakusketa.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalzarreta, 1.943 67 36 49.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Udako azken egunera arte ere plisti-plasta

**ASTEASU** ■ Urteko egunik beroenak joan zaizkigun arren, oraindik ere udaz gozatzeko aukera badugu, eguzkiak urrutira joateko asmorik ez duela baitirudi. Bero egiten duen egunetan, hondartzara joatea da aukeretako bat, eta bestela, igerilekua ere gustuko izaten dute herritar askok. Bada

gurean igerileku berriak estreinatuta dituenik ere, Asteasu, hain zuzen. Duela bi aste inauguratu zuten bertan, udako azpiegitura berria, eta orduetik jendez lepo ageri da. Lehendabiziko urtean, gainera, asteasuarrek doan gozatzeko aukera izango dute igerileku berriez. E.MAIZ

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>